



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

## 2023KO AZAROAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia eta Maialen Iñarra Arregi.

Usurbilen, 2023ko azaroaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2023/10/26KO BILKURA.**

Batzarkideek 2023ko urriaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO URRIAREN 23TIK AZAROAREN 17RA (2023/1051-2023/1143).**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Alkatetzak 2023ko urriaren 23tik azaroaren 17ra bitartean (2023/1051-2023/1143) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### 3.- TXIRIKORDAKO OBRAREN LIKIDAZIOA ETA NEURKETA MATERIALA.

Hasteko, puntu hau diktaminatu gabe dagoenez batzarkideek aho batez berretsi dute puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### “AURREKARIAK

- I.- 2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzeke espedienteari onespena eman zion, udal Kontratatzaille Plataforman argitaratuz.
- II.- 2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari egin zitzaion eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu zen, 1.953.312,02 eurotan (BEZa salbuetsita). Ezarritako bermea 97.665,60 eurokoa izan zen eta zuinketa akta 2021eko abenduaren 16an sinatu zen.
- III.- 2022ko urtarrilaren 14ko 2022/30 Alkatetza Dekretu bidez (gerora Udalbatza Plenoak 2022ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkuran berretsia), kontratu hau aldatzea onetsi zen, obra gehigarriak txertatzeko. Adaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %2,52ko igoera. Esleipendunak 2.458,14 eurotan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- IV.- Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran kontratu hau bigarren aldiz aldatzea erabaki zuen, obra gehigarriak zein funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %1,52ko igoera. Esleipendunak 1.486,97 euroan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- V.- Udalbatza Plenoak 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran erabaki zuen obra kontratu honen prezioen salbuespenezko berrikuspena egiteko behin-behineko baimena ematea eta salbuespenezko berrikuspena kalkulatzeko irizpideen arabera zenbatekoa 136.374,27 eurokoa (BEZa salbuetsita) dela zehaztea.
- VI.- Udalbatza Plenoak 2023ko urriaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zuela: “LEHENENGOA. (...) obra kontratuaren (Esp.zkia: ID.05/2021-0054) *suntsiarazpena erabakitzeke prozedurari hasiera ematea,*



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

*kontratastari egotz dakiokkeen kontratuaren epea ez betetzeagatik (...) eta SPKLren 213.3. artikuluan ezarritako ondorioekin (bermea inkautatzea eta, hala badagokio, Udalari eragindako kalte-galerak likidatzea). .....BIGARRENA. Kontratastari eta abal-emaileari behin-behineko proposamen hau helarazi eta entzunaldia ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun naturaleko epean egokitzat jotzen ditu(zte)en alegazioak edo agiriak aurkez ditzaten. (...) Emandako epean ez da inongo alegaziorik aurkeztu, Idazkariaren ziurtagirian jasotzen denez.*

- VII.- Alkatearen 2023ko azaroaren 20ko 2023/1144 Dekretuaren bidez erabaki zen gauzatutako obraren likidazioari dagokion neurketak gauzatzeko, alde batetik, CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. eta, bestetik, Iñigo Peñalva Arribas Obra Zuzendaria egiaztapen eta neurketa ekitaldira deitzea. Dekretu horren jakinarazpena eskuz egin zitzaion, 2023ko azaroaren 21ean bertan, espedienteko agirietan jasotzen denez. 2023ko azaroaren 21ean, goizeko 9:00etan, Txirikorda eraikinean bertan egiaztapen eta neurketa ekitaldia egin zen eta hiru aldeek sinaturiko akta jaso zen, ikuskapenaren ondorioak akta horren eranskinean zerrendatuz.

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

## **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.** Usurbilgo Udalak 2021eko urriaren 5ean CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.-rekin sinaturiko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratuaren suntsiarazpena 2023ko azaroaren 10etik behin betikoa dela jakinaraztea.

**BIGARRENGOA.** Gauzatutako obraren likidazio eta neurketa materiala erabaki honekin batera jakinaraziko den eranskinean jasotzen dena dela jakinaraztea.

**HIRUGARRENGOA.** Likidazio juridiko eta ekonomikoa abiarazteko Hirigintza saileko teknikariari txostena eskatu eta kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioz eragindako kalte galderei erantzuteko bermeak inkautatzea.

**LAUGARRENGOA.** Alkatezari eskumena ematea likidazio juridiko eta ekonomikoko prozedura izapidetzeko eta jakinarazpenak egiteko, eta likidazioko azken erabakia (alegazioak egon edo ez) Udalbatza plenoak erabakitzea.

**BOSGARRENGOA.** Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MURIAS S.A., berme-emailei eta Obra Zuzendaritzari ematea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

#### **4.- 2023KO BIGARREN SOLDATA IGOERA (%0,5) ONARTZEA.**

Batzarkideek, Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2023 urteari dagokion langile publikoen soldata igoera dela eta, abenduaren 23ko 31/2022 **Estatuko Aurrekontuen Legearen** 19. artikulua zera dio:

“Dos.

*1. En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*

*2. Asimismo se aplicarán, en su caso, los siguientes incrementos respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos, en ambos casos, de 1 de enero de 2023:*

*a) Incremento vinculado a la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado (IPCA). Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0,5 por ciento.*

*A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.*

(...)

*Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.*

*Se exceptúan, en todo caso:*

*a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.*

*b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.*

*c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.*

*d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.*

(...)

*Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.”*

Bestetik, indarrean dagoen **Usurbigo Udaleko Lan Hitzarmenak** zera arautzen du:

“88. artikulua.- *Ordainsarien igoera*



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

1. Erakunde sinatzaileek eros-ahalmenaren mantentzea hartuko dute erreferentzia modura. Horretarako Akordio hau indarrean dagoen bitartean, ezarri behar diren aurrekontu-arauen arabera izango da igoera.

Igoera urte bakoitzeko urtarrileko nominatik aplikatuko da, azken abenduko eta azken aurreko urteko abenduko Gipuzkoako KPI-a kontuan hartuz. KPI hori negatiboa izango balitz, ez da jaitsierarik aplikatuko. Hortik gorako igoerak urtez urte aztertu eta adostuko dira, uneko ekonomia eta legearen arabera.

Edozein kasutan, KPI-aren arabera igoerak beti ere legeak ahalbideratzen baditu eta legeak ahalbideratzen dituen neurrian burutuko dira. Legeak mugak jartzen baditu konpromezua ez da beteko (...)"

## KONTUAN HARTURIK

Apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, zera dio 103.bis artikuluan: *“Las Corporaciones locales aprobarán anualmente la masa salarial del personal laboral del sector público local respetando los límites y las condiciones que se establezcan con carácter básico en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado”.*

Estatuko Aurrekontu legeak baimentzen duen portzentaia gehienekoa da, eta hori ezin izango du gainditu. Dena den, Usurbilgo Lan Hitzarmenak soldata igoera erregulatzen duenean ez ditu funtzionariak eta laboralak ezberdintzen eta zentzu horretan, hitzarmen horretako 4. artikuluan ere hitzarmena langile guztiei aplikagarri izango zaiela adierazten du.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko Legearen Testu Bategina arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 27. artikulua honakoa dio: *«Las retribuciones del personal laboral se determinarán de acuerdo con la legislación laboral, el convenio colectivo que sea aplicable y el contrato de trabajo», respetando en todo caso lo establecido en el art. 21, que se refiere a «los límites fijados anualmente en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el personal».*

2023 urteko soldata igoerari dagokionez zera eduki behar da kontuan: lan hitzarmenak berak irizpidetzat hartzen duen erreferentzia (azken abenduko eta azken aurreko urteko abenduko Gipuzkoako KPI-a kontuan hartuz) aurten %5,4koa izan dela, eta legezko gehienekoa igoera %2,5koa (+0,5+0,5) dela. Egoera horretan hitzarmenak berak zera dioela: *“Edozein kasutan, KPI-aren arabera igoerak beti ere legeak ahalbideratzen baditu eta legeak ahalbideratzen dituen neurrian burutuko dira. Legeak mugak jartzen baditu konpromezua ez da beteko”.*

Zentzu berean, abenduaren 23ko 31/2022 **Estatuko Aurrekontuen Legearen** 19.8 artikulua zera dio: *“Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en este artículo deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opongan al mismo.”* Eta artikulua hau oinarrizkoa dela kontuan izan behar dugu.

2023ko martxoaren 30eko Udalbatza plenoak lehen soldata igoera onartu zuen, %2,5koa hain zuzen ere.

2023ko urriaren 5eko Estatuko Aldizkari Ofizialean 2023ko urriaren 4ko ebazpena argitaratu da,



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

sektore publikoko soldaten %0,5eko igoera onartuz. Azkenik, Eudel erakundeak 2023ko urriaren 5ean sinaturiko zirkularrak jasotzen duen gomendioa honakoa da: *“sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien %0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea. Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin (...)*”.

Pertsonal eta Antolaketa teknikariak txostena osatu du eta gaia 2023ko azaroak 7ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2023ko azaroaren 15ean egindako Antolaketa Batzordean eztabaidatu ondoren ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Aho batez.

Beraz, hori dena ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

## ERABAKIAK

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Udaleko langileen lansariak %0,5-a igotzea onartzea, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, beti ere 2022ko abenduaren 31ean indarrean zeuden lansariei buruz, eta alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna baldintzetan, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzintasun sarien kopuruari dagokionez ere. Guzti hori Estatuko 2023ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legean jasotako ahalbidearekin bat etorritz.

**BIGARREN:** Akordio honen berri langileen ordezkarietara, Kontuhartzaitza sailari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 5.- MOZIOA: KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOA.

Batzarkideek, Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoaren aldeko botoarekin onartu dute, honela dio:

“KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOA



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Gure Autonomia Erkidegoak, Euskadik, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiena duelako.

Klima-aldaketak hainbat inpaktu eragin ditu gure planetan, eta bero-boladak gero eta gogorragoak eta ohikoagoak eragiten dituen ondorio kezkarri ugarietako bat da.

Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzilariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketen fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoa eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eraginean arreta jartzen.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean inoizko egunik beroena izan genuen: 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu ziren Euskadiko hainbat tokitan, baita tenperatura horiek gainditu ere, Solupen (Bizkaia), esaterako, 45,3 gradu, 1981eko 45-44 graduak gaindituta.

Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra, eta aurreikuspenak aise gainditu dira.

Bizkaian, 43,7 gradu Derion, Galdakaon 43 gradu. Araban, 44,6 gradu Laudion, 42,2 Amurrian, 40,6 Zanbranan eta 40,4 gradu Gasteizen.

Era berean, Gipuzkoan, udalerrri gehienak ez dira 40 gradura iritsi, Elgoibar, Arrasate eta Beasain izan ezik, horiek gainditu egin baitituzte.

Temperatura horiek direla eta, Euskadin 48 pertsonari eman zaie arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Segidako bero-boladek deigarriak izan behar dira gure lurraldean eta udalerrietan klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko, gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borroka eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udalak honako mozioa onartu du gehiengoaren aldeko botoarekin:

1. Udalerriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egitea eta udalerriko gune grisetan birnaturalizazioa sustatzea.
2. Tenperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaian aterpe klimatiko gisa erabil daitezteen kanpoko zein barruko espazioak kokatzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

3. Hirien berdatzea sustatzeko, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, gure hiriak klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa.

4. Usurbilgo lorategi eta baratze pribatuetan ingurumen- eta iraunkortasun-jardunbide egokien kontzientziazio-kanpainak bultzatzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

## **6.- ADIERAZPENA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA.**

Hasteko, puntu hau diktaminatu gabe dagoenez batzarkideek aho batez berretsi dute puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, adierazpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“ADIERAZPENA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezinena eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskak eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerak ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta





Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta, Usurbilgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz.
- Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatea/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.
- Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- a) Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak
- b) Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.
- c) Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.
- d) Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

## **7.- ADIERAZPENA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.**

Hasteko, puntu hau diktaminatu gabe dagoenez batzarkideek aho batez berretsi dute puntu hau gai-zerrendan sartzea.

PSE udal taldeak emendakin osoa aurkeztu dio jatorrizko testuari, honakoa:

### **“Euskal hiztunon ahotsa, euskararen zabalbide Euskal hiztuna, euskararen zabalkunde digitalaren eragile Nagusia**

Gure alde, euskararen alde alegia, inork egin dezakeenaz galdetu ohi dugu sarri euskal hiztunok, bereziki Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruko gogoetan. Ezin uka, jakina, egin beharreko galdera eta gogoeta dela, baina ez litzateke inola ere zilegi, are gutxiago baliagarria, ikuspegi horretara mugatzea euskararen aldeko jarduera.

Garrantzi betekoak izaten jarraitzen dute, ezinbestekoak, euskararen erabileraren aldeko ekimen kolektibo presentzialek, jendetsuek, kale girokoek; ezinbestekoak diren bezala euskara ardatz duen elebitasun orekatua gauzatzen jarraitzeko lankidetzeta pribatu-publiko harmonikotik datozen ekimen eraginkorrak oro.

Baina digitalizazio aurreratuaren garai honetan, adimen artifiziala makulu ezezik kultur, komunikazio eta gizarte garapenaren bektore nagusi bilakatzen ari zaigunean, erronka berri bat iritsi da gure komunitatera.

Algoritmoak ausazkotasunarekin lotzen ditugu sarritan eta adimen artifiziala gure kontrol eremutik at dagoen esparru batekin. Baina teknologia aurreratu guzti honen muinean, gizakiak etengabe elikatutako tripak daude. Makinen autonomia gero eta handiagoa izanik ere, autonomia hori era batera edo bestera elikatu eta bideratu daiteke. Bada, elikatze horretan dugu euskaldunok etorkizun hurbilerako erronka, bai erakundeen aldetik baita norbanakoen aldetik ere.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Sortuko diren tresna, aplikazio, gailu... berriek gure hiztun komunitatearen eta gure euskararen muina behar dute errailetan. Horretarako, ahotsa, hizkera, hizkuntza ezagutza, aldaera, estiloa, berezitasuna, esakera edo idazkera etorkizuneko tresnen elikagai bilakatu behar ditugu.

Euskararen zabalkunderako aro digital berria hasi da, inplikazio pertsonalaren bidez eta komunitate gisa jarduteko unea iritsi da. Har dezagun geure esku bereziki adimen artifizialaren bidetik datozkigun lanabesak euskaraz funtzionatzeko bidean tinko jartzeko ardura, erakutsi diezaiogun euskaraz lan egiten geure eguneroko jardueran ezinbesteko lankide dugun tresneria digitalari.

Oparo bueltatuko digu-eta gure oraingo ahaleginaren mozkina, modu ezin praktikoagoan bueltatu ere: euskarazko datu-base sendo bat sortuta, euskarak zuzeneko sarbidea izango du sare teknologiko nagusien zirkuituetan, eta, horren eskutik, eguneroko eta helburu ugaritako aplikazioetan.

Ez da amets bat, hil edo biziko eginkizuna baizik euskararen garabideari begira eta, batez ere, digitalizazioaren unibertso ekidinezinean gure hizkuntzak atzerapausorik gabe aurrera egin ahal izan dezan.

Beste hainbat urrats egin ditu euskarak digitalizazioaren eremuan oraingo honen aurretik ere, esate baterako, itzultzaile neuronalaren, itzulpen automatikoaren, ahots sintesiaren eta transkripzioaren alorrean eman diren urratsak.

Hortxe beraz, bidea: erabil ditzagun gure alde, euskararen zabalkundearen alde, teknologia kolaboratiboak, izugarria izango dugu ahaleginaren ordaina, guztiz aldekoa eta, batez ere, atzeraezina.

Euskal hiztunon komunitateak zor dio bere buruari ahalduntzerako bide honetan urrats erabakigarriak egitea, digitalizazioak sortutako beharrak asetzea, kasu.

Eta ireki diezaiogun ahalegin honen atea, baita ere, euskarara hurbiltzen ari diren herritar guztiei, euskal herritarron komunitate eleaniztunak elkartasunez, harrotasunez eta kontzientzia betean bizi dezan euskararen aurrerabide digitala.

Eman diezaiogun ahotsa euskarari, mundua euskaraz izendatzen jarraitu ahal izan dezagun. Euskarari zor diogu. Geure buruari zor diogu.”

Emendakina bozketara eraman da eta gehiengoaren aurkako botoarekin ez da onartua izan, honela izan da bozketa:

- Emendakin osoaren aldeko botoak: Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

- Emendakin osoaren aurkako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguroola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Jarraian, adierazpena aztertu dute eta gehiengoaren aldeko botoarekin onartu dute, honela dio:

### **“Euskara eta bidea**

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2023.  
Adierazpen instituzionala

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainera, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da errelatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gaintitu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzearaino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertakohizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreako nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin duguzabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/11/29

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoa: Petra Romero Pozo.

Beraz, adierazpena gehiengoz onartu da.

## **8.- ABENDUAREN 28KO OHIKO BILKURA ABENDUAREN 20RA AURRERATZEA.**

Batzarkideek aho batez onartu dute abenduaren 28ko ohiko bilkura abenduaren 20ra aurreratzea.

## **9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:05ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**